

Titularra testua

Bi pasadizo: 1)Bilboko aldirietako merkataritza tenplu handiengan, bertsolaritzaren tenplu nagusitik hain hurbileko horretan, bakoitza bere etxeko errepublika independentean hesitza gonbidatzen gaituen altzari saltegitzarrean, 4 urteko ume euskaldun ia elebakarra gura-



JIRA
Angel Erro

soekin erosketetan. Asper-asper eginda dabil, gurasoek diseinatzailetara jolasten duten bitartean. Beste haur bat ikusi, eta harengana joan da korrika: «Izango gara lagunak?», galdera. «Bai, bai», pozarren besteak.

Halaxe lotu dira jolasera, eta hala dabilta lagun egin berriaren gurasoak haren bila hurbildu diren arte. «Kaixo» esan diete, baina gero espainieraz jarraitu dute: badoazela etxera. Kolonbiatik etorritakoak direla azaldu diete desenkusatzuz ume euskaldun ia elebakarraren gurasoei. 2)Ume euskaldun ia elebakar bera Lapurdiko herri bateko plazako ostatuan, gurasoen lagun batzuk bisitatzaera joanda, helduen berriketarekin aspertuta. Ume bat ikusi du atarian, eta badoa lasterka harengana: «Izango gara lagunak?». Mutu geratu da beste haurra, begiak talotuta begira. «Izan nahi duzu nire laguna?», bigarren saioa. Azkenean, besteak erantzun du zerbait, frantsesez, eta alde egin du korrika. Gurasoen lagunak azaldu dute haur horrek euskaldunak dituela laaldu dute haur horrek euskaldunak dituela lau amona-aitonak.

Titularra testua

Berandu iritsi zaie nire lagunei notizia eta harriturik gelditu dira zeharo. «Baina hau posiblea da?». «Haluzinagarria». «Hau herri hau, Nafarroa maritimoa ez, Nafarroa opusianoa!». «Posible, zer ez da posible jada?».

Parodiazko prozesio baten buruan aita santuaren, oraingoaren, argazki bat erretzeagatik zazpi gazte auzipetu dute. Nik orain egun batzuk titulua leitu eta ez nuen sinetsi. Eragindako sutea izanzen zen auzipetzearen kausa, baina ez. Sentimendu erlijiosoaren kontra

jarduteagatik salatu dute. Baina noren sentimendu erlijiosoak? Galdetu dute burlaren lekuko izan zirenei ea sumindu ziren. Edo gerora notizia irakurri dugunoi, zerk sumindu gaituen.

Nik ere baditut sentimenduak. Haietako batzuk erlijiosoak, nahiz eta ez ezagunak diren erlijio klasikoei lotutakoak. Rikardo Arregi Diaz de Heredia poetak sortutako erlijioan naiz ni partaide. Eta nire sentimendu erlijiosoek ukigabe jarraitzen dute, argazkia erre ala ez. Nire sentimendu erlijiosoak, berriz, oso minberak dira protesta modu guztiak, baita inozoenak edo folklorikoenak ere, kriminalizatzeko joera gero eta zabalagoarekin.

Ozenegi mintzo direnek ere nire sentimendu erlijiosoei erasaten diete, baina horretan ohituegi nago.



BIRA
Onintza Enbeita

Brexit: erraietatik

Calzada, I. (2019), Brexit: erraietatik, Berria. Retrieved from <https://www.berria.eus/paperekoa/1957/022/002/2019-09-08/brexit-erraietatik.htm> DOI: 10.13140/RG.2.2.15258.59849.

Igor Calzada
Oxfordeko unibertsitateko
akademikoa

Erraietatik ari natzaizue: *Brexit*-a tsunami sarkor bat izaten ari da azken urte hauetan. «Herriari hitza» emanez eta ustez demokraziaren ize-nean sortua izan arren, sare sozialen bitartez eta balizko manipulazio algoritmikoak medio, emeki-emeki lurperatua izaten ari den demokrazia britaniarra bera, pipiak janda dagoela ondorioztatu genezake egun. Brexit-ak, erresumako lau nazio-zutabeak arrakalatu ditu. Ondorioz, «herriari hitza» ematearen kontraesanen eremu labainkorrera kondenatu du Erresuma «Batua»: 1215 urtetik geroztik Europako demokraziarik zaharrena izan dena, baturik zirudien erresuma, erraietatik biluztu arte.

Ofizialki, 2016ko Ekainaren 23a inflexio-puntu gisa finkatzen bada ere, *brexit*-a, berariaz aspalditik datorren prozesu jarrai baten ondorio historiko-politiko zuzena da. Honela, bozketaren hurrengo eguneko goiz hartan, Hamburgon harrapatu ninduten emaitzek, inongo harriturik gabe jaso nituela onartu behar dut. Dagoneko zortzi urte luzez Ingalaterra, Eskozia, Gales, eta Ipar Irlandaren artean ikerketan dihardudan britaniar nazionalizatu, legeak behartuta espainiar, eta berariazko nortasunez nazioarteko euskal hiritar gisara; nire buruari etengabe egiten diodan galdera honakoa izan da urteetan zehar: Zergatik uste dugu Euskal Herriak, britaniarrak Europar (sentitu behar) «direla»? Kontinente berebetean kokatuak daudelako? Zergatik erakusten dute britaniarrek Europar Batasunarekiko (EB) halako higuina eta mespretxua? London city-ra (zeresanik ez, metropolitarrak ez diren Ingalaterrako herrixka eta landa eremuetara) egiten duzuen zuen hurrengo bisitan, mesedez erreparatu iezaziozue zenbat EBko ikur edo bandera ikusmiratzen dituzuen. Nekez aurkituko dituzue. EBren presentzia instituzional eta hiritarra bera ikusezina dela ohartuko zarete. Are gehiago, ebidentzia alternatibo bezain aurreikus ezin eta txundigarri bat botako dizuet hemen: Nola da posible Ekainaren 23ko ilunabarrean, bozkalekuak jada tankatuta eta erreferendumaren bozkaren ostean, britaniar andana handi batek ordu

txikietan, Googleko bilatzaileak jo izana, honako galdera zehatz hau trending topic bilakatuz? «Zer gertatuko zaigu EB uzten badugu?» Zerbait oker dagoenaren seinale, ezta? Disfuntzio-naltasun demokratikoa islatzen duten froga hauek *Cambridge Analytic*aren manipulazio algoritmikoaren bazka izan dira gaurdaino. Netflixen *The Great Hack* filma ikusteko gomendioa egiten dizuet eta ohartuko zarete berariazko isilpeko zaintza konspiratzaile-populistaren biktimaren deitura dela Brexit, alegia.

Agian, nire aitona jeltzalearen estatu gizon-idolo ikonikoa zen Churchill zaharra gogora ekarri behar dugu inoiz baino gehiago orain. 1953 urtean Westminsterreko Komunaren Ganbararen erran zituen hitz gogoangarrien oihartzuna gaurdaino darrai eta: «Gu, Erresuma Batuak, Europarekin gaude, baina ez gaude Europan. Itsaso zabala eta Europan artean aukera egin beharko bagenu, argia litzateke gure hautua: dudarik gabe, Erresuma Batuak itsaso zabala aukeratuko luke». Ba hori, *Br-Exit*.

Eta orain zeintzuk dira balizko hiru agertokiak? Hitz-bitan ene analisi telegrafikoa:

Lehen agertokia, akordioa. Egun, agertokirik zailena dirudi. Akordioak, hiru zutabe nagusi jasotzen zituen: hiritarren eskubideak, finantza-dibortzioa, eta irlandar muga (*backstop* deritzona).

Bigarren agertokia, luzapena. Ez dirudi ere oso balizkoa, Johnsonek «hil ala bizikotzat» finkatu baitu urriaren 31ko data haustura gauzatzeko. Eta bestalde, EBak soilik onartuko luke luzapena bi ezohiko egoera hauetatik sikiera bat gailenduko balitz: bigarren erreferendumerako edota hauteskunde orokorretarako deialdiak.

Zergatik uste dugu Euskal Herriak, britaniarrak Europar (sentitu behar) «direla»? Kontinente berebetean kokatuak daudelako?

Hirugarren agertokia, akordiorik-eza (*No Deal* entzutsua). Hemen azpimarra berezia egingo nuke. Izan ere, ondorioak ez lirateke soilik Erresuma «Baturako» izango; oro har, EB guztiarekin eta baita ere Euskal Herriak nozituko litzuke. Iragan astean YouGov-ek egiten zuen inkestaren arabera, «soilik» britaniarren %47ak onargarritzat jotzen zuen *No Deal* agertokia. Antza denez, britaniarrek euren subiranotasunaz bizirauteko konfiantza (ausardia? larderia?) berezko jarrerara dute. Ordaina? Testuinguru arrakalatu bat, Erresuma «Batua» osatzen duten lau nazioak bestelako jardunbide propioak marrazten ari baitira aspalditik:

Ez dezagun ahanzi, Ingalaterra (Erresuma Batuen %84aren populazioarekin) *brexit*-aren epizentro zentripettoa dela. *Brexit*-a bere barne eta kanpo krisiaren isla zuzena izan da. Eskozian, adierazgarria oso, Ruth Davidson, Eskoziako kontserbadoreen buru argitsuak, dimisioa aurkeztu izana iragan astean. Eskoziaren lehentasuna, EBan geratuz, egunetik egunera gehiago lotzen zaio estrategikoki balizko independentziaren bigarren erreferendum baten aukerari. Galesen, 1213 urtetik aurrera, Ingalaterrako itzala handia bada ere, berau esnatzen ari dela dirudi. Eta azkenik Ipar Irlandan: oso kezagarria da egoera. Indarkeria disidente paramilitarren zantzu arriskutsuak gertatu dira berriki. Eta hori dirudi dela *brexit*-ak Irlandarentzat duen «ekarpena»: lortutako bakea berriro ezandaraztea.

Gibel solasa:

Baina *brexit*-az gutxiago hitz egiten da honakoaz: gizabanako/hiritarren status eta bizi-baldintzak goitik behera aztoratu dituela. Estatu, nazio, eta nazio gairikoko bloketik harago, gizabanako/hiritarrentzat, etorkizun ezjakin baten ortzi mugan, euren egunerokotasuna bihurtu dute euren erresuma burujabe bakar. Bizirauteko sistema likidoa. Honen ildotik azken burutazioa: *brexit*-aren zeharkako efektu gisa, zabaltzen ari ote dira jadanik hirtartasun molde likido eta parekideak? Izango al da inoiz EB nazioen mosaiko federatu, inklusibo, eta behetik gora eguneratzen den demokrazia deliberratibo oso baten gisakoa? *brexit*-a astakeria nazional bat dela onartuta, zein da jada EBren erreinuan subiranotasunak betetzen duen papera, hiritar ikuspuntua delarik geratzen zaigun helduleku bakarra?